



Nabarnizko Udala

NABARNIZKO HIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRAREN SOLUZIO, IRIZPIDE ETA HELBURUEN HITZARMENA (ART 90.4, L2/2006)

AURREKARIAK

Plan Orokorraren idazte prozesuak fase desberdinak ditu. Orain arteko ibilbidea honakoa izan da:

1. Hirigintza informazioa.

Aurrerapen dokumentuaren oinarria Udalerriaren gainean bildutako informazio txostenean dago, non ikerketa sozio-ekonomiko eta ingurumen mailakoak egin diren, udalerrian eragiten duten arautegi guztien ezagutza bilduz gainera.

2. Plangintzaren Aurrerapena.

Udalerriaren inguruan bildutako informazioaren analisi eta konklusioen laburpena barne hartu eta Antolamenduaren irizpide, helburu eta irtenbide orokorrak ulertarazteko agiriak jaso dira.

3. Ingurumen Inpaktuaren Baterako Ebaluazioaren Azterketa.

Plangintzaren Aurrerapena idazten ari den une berean, Ingurumen Inpaktuaren Baterako Ebaluazioaren Azterketa egingo da, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra eta zenbait planek ingurumenean duten eraginaren ebaluazioari buruzko apirilaren 28ko 9/2006 Legea (2008/04/29ko BOE) betez. Horrela, Plana ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioaren prozeduraren eraginpean jarriko da, otsailaren 27ko 3/1998 Legearen I. A) Eranskinak jasotakoarekin erlazionatutako plana baita.

4. Erakusketa publikoa

IIBEA eta Aurrerapen dokumentuak eginak direnean, Udalak dokumentu hauek onartu gabe, dokumentuen erakusketa publikoa onartuko da 2 hilabete luzapenarekin gutxienez, ondoko udalerriei ere informazioa helaraziz. Erakusketa honen deialdia lurralde historikoko buletinean eta egunkarietan agertu behar da.

5. Txosten teknikoak.


Erakusketa publikoaren epealdia bukatu denean, parte hartze prozesuaren lehen fase honi itxiera ematen zaio. Talde idazlariak jasotako iradokizunen inguruan txosten tekniko bat osatuko du, Bizkaiko Foru Aldundiaren Ingurumen Departamentuak igorritako Txosten Teknikoa ere kontutan hartuz.

6. Soluzio, irizpide eta helburu orokorren hitzarmena.

Orain arteko ibilbidean garatutako ikuspegiak kontutan hartuz, hala nola orain arte egin diren txosten teknikoak, Udaleko Osoko Bilkurak Plan Orokorraren Hasierako Onarpenaren oinarritzko printzipioak adostuko ditu.

IRIZPIDE ETA HELBURU OROKORRAK

Plangintzaren Aurrerapenaren memorian 10. atalean azaltzen diren helburuak eta irizpideak agertzen ditugu jarraian, Plan Orokorraren oinarritzko printzipio orokor gisa irakurriak izan daitezten:



Nabarnizko Udala

GUNE NATURALAK BERMATZEA eta BALIABIDE NATURALEN KUDEAKETA

Ezinbestekoa da lurzorua berezko baliabide naturalen babeserako neurri aktiboak ezartzea; bai berezko dituen ekoizpen balioengatik, baita udalerriaren paisaia eta ingurugiroaren kalitateari esker, diferentziazio faktore izateagatik ere. Nabarnizek ondo kontserbatutako aktibo ekologikoa eskaintzen duela berresten dugu, beraz, garatzeke dauden jarduera guztiek haren eragina gutxituko dute eta balioz handituko dute, neurri aktiboen bitartez. Ondorioz, ondare biologiko, ekologiko, kultural eta paisajistikoa, ordenazio eta garapenerako elementu nagusiak izango dira.

Ingurune naturala lehentasunezko baliotzat jo behar da Nabarnizko eremuan. Ingurune naturala, ordea, ez da estatikoa, ezta ikuskizunerako paisaia egonkorra ere; ekoizpenerakoa da. Hortaz, lurzoru honen helburuak berorren produktibitate eta kudeaketara jo behar du. Ingurunearen babesa, debalatu dezaketen beste ekintzengatik babestea dakar; ez, ordea, inolako ekimenik ez egitea bertan. Kontserbazioak ingurune naturala eboluziozkotzat jo behar du; beraz, helburu jakin batzuen pean, etengabeko jarduera aintzat hartu behar da.

BASERRIAREN BIDERAGARRITASUNA BERMATZEA, INGURUNEAREN KALITATEAREN KUDEATZAILE NAGUSIA DENA

Nabarnizen konpromisoan, Aurrerapenak abiapuntu izan behar du, lehenik, baserriaren eta baserriaren ingurugiro eta ondare historiko-kulturalaren balioa aintzatesteko. Nekazal eta abeltzainen jarduerarako funtsezkoa denaren alboratze progesibo larria gertatu da, neurri berean, prestigio galera ematen zelarik. Izan ere, langileen bizi-kalitatearen berritzea eza eta errentabilitate ekonomikoaren murrizpena suertatu baita. Ordezko lan aukerak izatea nekazaritza beraren alternatiba baina osagarri izanik, ezinbestekoa da nekazal arloaren bizi iraupenerako.

Enplegua lehen sektorean, oso baxua da bere eskualdearekin alderatuz. Udalerri honek ez du, ordea, nekazal izaera galtzen; edonola ere, funtsezkoa da bere aktibo nagusienetakoak (paisaia, ingurugiro kalitatea, tradizioak, hirigintza nahiz arkitektura ondarea eta, oro har, hiri-guneen osagarritasuna) zaintzea nekazal eremu hauetan, bizi dugun garapen garai honi aurre egiteko.

SAKABANATZE HAZKUNDEAREN SAIHESPENA NEKAZAL GUNEETAN

Ingurugiro naturalean dauden etxebizitzak, jatorriz daude nekazal ingurunera lotuta, beraz, eremu horietan ezartzen diren etxebizitza berriak ingurunearen kudeaketa laguntzera bideratu behar dira.

Nekazal-guneen hazkundeak eskaria asetu nahi izan badu ere, errealitateak erakutsi du, nekazal-guneen hazkundeak, bigarren etxebizitza duten biztanle berriak bereganatu dituela, gune horien indiosinkrasia eta ulertzeko eratik at daudenak, hain zuzen.

Gertaera honek, guneon giza-konfigurazioan zuzenean eragiteaz gainera, paisaiaren ikuspegitik, etxebizitza berrien eraikitze-bolumenaren ezarpena ez dator bat jadanik dauden baserrien irizpideekin –hots, ingurune naturalarekin harreman zuzena, topografiaren araberako bolumen handia, baina aldatu gabe, hari egokitu nahirik-. Beraz, erakin berriek zaharrekin duten pertzepzio orokorraren loturaren haustura



Nabarnizko Udala

eragiten da, ez baita dagoen-dagoenarekin harremana lortzen saiatzen, egoera urrun eta isolatutakoekin baizik.

Hazkunde hauek, askotan, nekazal guneen ohiko egitura desitxuratu dute. Aurrerapenak giro eta giza degradazio hau saihesten saiatuko da.

Bestalde, agerikoa da Nabarnizko ohiko guneetan hainbat baserri hutsik daudela: hortaz, planeamenduaren bidez, aipatutako baserrien zaharberritzean laguntzea ezinbestekoa da.

Helburu horren harira, Plan Orokorrak landa-guneen mugaketa egiteko eta landa-guneak definitzeko baserrien biltze-izaera izango du kontutan (legeak behartzen duen moduan) eta azalera handia hartzen duten partzelak mugaketatik at jarriko dira, partzela hauek landa-guneen sakabanaketa bultzatzen dutela ulertzen baita.

Laburbilduz, Arauetan agertzen diren eraikitze-aukerak mantentzen saiatuko da beti ere esandako irizpideak betetzen baldin badira. Legedi berriaren partzela-eraikigarrien mugaketa eragina duen landa-guneen berrikuspenean baserrien bilketa laguntzen duten kokapenak lehenetsiko dira, sakabanaketa sustatzen duten partzelak baztertuz.

GUNE NAGUSIAREN INDARTZEA

Nabarniz ingurune, kultura eta hiri-balio handiko egitura polinuklearreko nekazal kokalekuan dago.

Hala ere, Eleixalde guneari, udal mailan funtsezko egitekoa aitortzen bazaio ere (ekipamendu inplantazioa dela eta), bizilagun kopurua ez da esanguratsua nekazal guneetan bizi denarekin alderatuz.

Elizalderen lidergoa sendotzea ezinbesteko bilakatu da, tamaina gutxiagoko guneen eta bere inguruan sakabanatutako baserrien aurrean, horrela, udalaren giza eta harreman-bizitza kapitalizatu dezan eta bertako biztanleek bat egin dezaten.

LURZORUAREN KONTSUMOAREN ARRAZIONALIZAZIOA

Lurzorua ondasun eskasa dela baieztatzea, berorren kontsumo beharrak azterketa sakona, hala nola, alternatiben ikertzea behar duela dakar. Hala, haren kontsumoa gauzaterakoan, ingurune naturalarekiko irizpide arrazional eta sentikorrek lehenetsi behar dira, eraikitze eta hirigintza burutzearen ondorioak neurtuz.

Horretarako, bizitzeko eta jarduerak burutzeko zein lurzoru diren egoki zehaztu beharra dago, lurzoruaren erabilera arrazional eta intentsiboa eginez, birgaitzea eta berrerabiltzea ahalbidetzea lehenestuz, hala nola, etxebizitza hustuen erabiltzea. Helburua hiri segregazio eta dispersioa saihestea da, lurraldearen funtzio primarioaren mantentzea ahalbidetzeko, hiri, nekazal eta natura espazioen ingurugiro balioak babesteko oinarria ezarri; baita espazioaren integrazio eta kohesio egokia bultzatu ere, mugikortasunaren sortzea murriztuz.

Hortaz, proposatutako hirigintza planeamenduak, biztanleriaren beharrak zehazteaz gain, mugagabeko hirigintza garapenez babestea izango du helburu, bere kontsumo eta bilakaerarako alternatibak bilatuz.



Nabarnizko Udala

ERAIKITAKO ONDAREAREN BIRGAITZE ETA BIRSORTZEA

Ezarritako beste helburu bat zera da: eraikitze jasangarria lortzea birgaitzearen bidez, jatorriz udalean eraikitako eta urbanizatutako ondarearen birsortzeari eta hutsik dauden etxebizitzei lehentasuna emanez, dauden eraikinetako esku-hartzeak ordenatuz, eta lurzoru bakoitzaren kalifikazioaren erabilerak zonaldeka doitzuz.

Egun Nabarnizen diren etxebizitza huts publiko zein pribatuen kopuru handia dela eta, berriki eraikiak izan direnak, etxebizitza hauen salmenta lehen mailako helburua da Plan Orokorrarentzat, hala nola goian aipatutako baserri hutsen okupazioa sustatu, nekazal ustiapena bultzatuz.

AUTO PRIBATUAN OINARRITUTAKO MUGIKORTASUNARI ALTERNATIBA

Mugikortasun azterketa motordun ibilgailuen erabilera behartu eta ez-beharrezkoa mugatzera zuzendua dago mugikortasun azterketa. Hala, ingurugiroa aintzat hartzen duten garraiobideak lehenesten ditu, euren erabilera konbinatu edo eskusiboa planifikatuz.

Nabarnizen ezarri beharreko planaren estrategia zera da; oinezko edo txirringa bidezko mugikortasunaren hobetzea (hiri artekoa zein nukleo artekoa), antzinako bideak berreskuratzen saiatuz edota nukleo ezberdinak lotzen dituzten errepideekiko paraleloak diren bideak ezarriz, lurrezko ibilgailuen interkomunikazioarentzat oinezko edo txirringa bidezko alternatiba eskaintzen saiatuz.


ESTRATEGIAREN ERAGIKORTASUNERAKO, EKIPAMENDUEN ANTOLAKETA ERKIDEA

Nabarnizek eskualdean duen egitekoa ulertzeko, udalez gairikoko ikuspegia behar du. Nabarniz Gernikako kapitaltasunaren menpekotasun funtzionalaren pean dago, garrantzi gutxiagoko beste udalerrri sistema baten barne.

Bizi-kalitatearen hobekuntza (hots, zerbitzu, hornidura eta ekipamenduen hobekuntza), ezin da gauzatu udal mailan, izan ere, bertako biztanleria mugatuak berorren planteamendua bideraezina eta ez-eraginkorra bilakatzen baitu.

Eleixaldeko hiri lurzoruan aurreikusi beharreko etxebizitza-garapena eta etxebizitza kopuruari dagokionez, honako irizpideak ezarriko dira:

- Plan Orokorrek biztanleriaren beharrak asetzeko egokiak diren etxebizitza-tipologiak eskaini behar ditu, biztanleria udalerrian gelditu dadin eta kanpora joatea derrigorturik egon ez dadin. Etxebizitza berriak Eleixaldeko hiri lurzoruan kokatuko dira.
- Aurreko helburua aintzat hartuz, Plan Orokorrek datozen 8 urteetan udalerrriaren etxebizitza kopurua kalkulatu du.
- Etxebizitza kopuruaren Eskaintza (Beharrezkoak baino kopuru handiagoa dena), ez da gaur egun hiri lurzoruan egin gabe dauden etxebizitza kopurua baino handiagoa izanda, saldu gabeko tasatu eta librean ere zenbatuz (17).
- Lurzorua baliabide eskasa eta berriztagarria ez denez, hiri lurzoruan proposatzen diren garapen berriek osorik edo partzialki artifizializaturik edo hiritarturik dagoena optimizatzen saiatuko da.



Nabarnizko Udala

- Etxebizitza Eskaintzaren kalkulua egiterako orduan okupaturik gabe dauden etxebizitza kopurua kontutan hartuko da. Aldi berean, hiri lurzoruan finkaturik diren eraikinek jaso dezaketen etxebizitza handipena kontuan izango da, baldin eta eraikirik dauden etxebizitza tipologiek azalera gutxiago hartzen badute etxebizitza-unitateko.
- Plan Orokorrak egoitza erabileraren eraikigarritasuna finkatuko du, egin beharreko eraikin berriek hiri lurzoruan diren beste eraikinen bolumetriarekin integraturik egon daitezen, beti ere jadanik hiritarturik den lurzorua sustatuz.

Aktibitate ekonomikoaren garapenari dagokionez:

- Plan Orokorrak aktibitate ekonomikoa sustatuko du, nekazaritza eta basogintza sektorea zein transformazio aktibitateak (industria-nekazarria). Horretarako lurzoru ez urbanizagarrian kokatzerik ez diren aktibitate hauek garatzeko hiri lurzorua sailkatuko du. Lurzoru honetan ezartzen diren aktibitateek balio erantsia izan beharko lukete eta udalerriko lehen sektorearen produkzioarekin sinergiak sortu beharko lituzke.
- Nekazaritzari lotutako enplegua sustatzea langabeziaren egoerari aurre egiteko abagunea da. Horretarako, sektoreko kanpo eragileen laguntzat, egungo nekazaritza-abeltzantza sarea berreskuratu eta zaharbertzako aukera izan daiteke. Egun aktiboan diren ustiapenek belaunaldi aldaketaren jarraitasunaren arazoarekin topo egiten dute, beraz, hauek desagertu baino lehen aukera handia dago jakintza, ezagutza eta esperientzi honi jarraibidea egiteko eta datorren belaunaldiari ezagutza transmisioa egiteko ahaleginak egin behar dira.

SOLUZIO OROKORRAK

Plangintza Aurrerapenak jasotako iradokizun eta aurre-eskakizunak alde batetik, eta Ingurumen Inpaktuaren Aurre-Txostena bestetik, hainbat zehaztapen egitera behartzen dute.

Erabaki orokorreari dagokionez, Aurrerapen dokumentuaren edukia onartzen da, honako soluzio zehatzek azterketa berezia behar dutelarik:

Iradokizunetatik


Jasotako iradokizun eta aurre-eskakizunei dagokionez honakoa adosten da:

Elexaldeko hiri lurzoruaren inguruan:

1. 18 eta 19 zenbakiduneko iradokizunetan agertutako eskakizunen inguruko aukerak aztertu egingo dira, lurzoru estrategikoak izateagatik hiri lurzoruan eta azaldutako irizpideekin bat etortzeagatik.

Iradokizun hauetan frontoiaren ingurualdean eta zentrotik gertu den partzelen dentsifikazioa eta antolakuntza berri baten aukeraz hitz egiten da. Egoera honen zentraltasuna eta interes orokorrak jaso ditzakeen onurak direla eta, antolakuntza berri baten gaineko azterketa egokia ikusten da bertako aukerak zeintzu diren ikertzeko. Elexaldeko 2 kale luzeen arteko espazioa artikulatzeko gune on bat dela irizten da.

2. 1 eta 24 iradokizunak berriz, egun eraikirik dagoen bolumenean etxebizitza kopurua handitzeaz jarduten dira. Eskakizun hau, berez, eraikitako ondarearen



Nabarnizko Udala

optimizazio helburuekin bat dator, bide hau lehenetsiz lurzoru berriaren artifizializazioaren aurrean. Hala ere, eskakizuna onartzeko azterketa sakonago bat egitea beharrezkoa da, berezko eraikin-tipologiaren ezaugarriak ikerturik egokitasuna ondorioztatzeko. Dena dela ere, indarrean diren estandarrak errespetatuko lirateke.

3. . Gainontzeko iradokizun eta aurre-eskakizunak ez dira aintzat hartzen, txosten teknikoaren argudioak direla eta.

Lurzoru urbanizaezinean:

1. Lurzoru mota honetako iradokizunetan lur-jabeek eraikitze desoia agertu dute. Horietako batzuetan jada posible da egindako Aurrerapen dokumentuan eta gainontzeko kasuetan ez da egokia eraikitze aukera eskaintzea beraz ez dira aintzat hartu, txosten teknikoan azaldutako argudioen arabera.

Ingurumen gaineko aldeez Aurreko Txostenaren inguruan

Foru Aldundiaren Ingurumen Sailak aldeez aurreko txostena ebatzi du, non hainbat ekintzek definizio berria edo desagerraraztea adierazten den:

1. Aktibitate ekonomikoetarako lurzoru berriaren sailkapenaren beharra, egokitasuna eta tamaina krisian jartzen da Txostenean. Aldiz, aktibitate ekonomikoetarako lurzoruaren beharra berresten da hemen, egungoa beterik izateagatik. Etxebizitza jarduerarekin bateragarriak ez diren eta ekonomi aktibitatea eragiten duten ekintzek lurzoru berria behar dute, kontuan izanik aktibitate mota hauen ezarketarako guneak urruti daudela.

Proposaturiko azalerak 8 urtetako aurreikuspena gainditzen du eta epe luzeagorako egina da, eta proposamenak eraikigarriak diren partzelen gaineko hiritartzeak eratorritako gastua txikitzea du helburu.

Hala ere, lurzoru artifizializazioan eratortzen dituen ondorioak gutxitzekotan, hiritarturik gabeko espazio libre publikoaren erreserba bat osatuko da P-4 gisa kalifikaturiko lurzoruaren perimetroaren ingurunean, aldi berean eraikin berrien ikus-inpaktua gutxituz bertako zuhaitzen landaketa medio.

2. Espazio libreen sistema orokorra Aurrerapen dokumentuan oinezko ibilbidearen gain P-4 kalifikazioa duen lurzoruan definiturik dago, Urdaibaiko Erreserbako Patronatuak baimentzen duen arren, beste alternatiba bat bilatu zaio, aldeez aurreko Txostenari jaramon eginez. Elexaldeko hiri lurzoruaren ondoan den eta udal jabetzakoa den partzela bat lokalizatu da zeinak erabilera hau jaso dezakeen. Partzela hau Uribarrira begira eta A-2 nekazal interesekoa da. Proposatzen den erabilera berriak parke izaera izango luke, hiritartzerik gabe eta tokiko landaredia izango luke.
3. 2010-2021eko Kantauriar Ekialdeko Hidrografiko Isurialdearen Plan Hidrologikoaren Proiektuak Nabarnizen 100mtako behin behineko babes-perimetroa ezartzen du. Kontuan izanik proiektua ez dela behin betikoa eta beraz aldakorra izan daitekeela eta araudi sektorialari dagokion ezarpena dela kontutan hartuz, ez da beharrezkoa jotzen Plan Orokorra jasotzea.



Nabarnizko Udala

Bestelakoak

Plan Orokorrak egoitza erabileraren eraikigarritasuna finkatuko du, egin beharreko eraikin berriek hiri lurzoruan diren beste eraikinen bolumetriarekin integraturik egon daitezen, beti ere jadanik hiritarturik den lurzoruia sustatuz. Horren harira:

- UER01-AAI-E1 gunearen antolaketa berri bat proposatzeko ikerketa zehatza egin beharko da, partzela pribatuen azalera txikitu dadin eta dentsitate baxuan garatzen den herri-garapena berbideratzeko, lurzoru kontsumo handikoa izateagatik.
- AAR01 gunearen azterketa egingo da BH+2 bolumenaeen 2 etxebizitza/oinplanta txertatzerik ote den konprobatzeko, beti ere legediaren estandarrak eta araudiak betearazten.

Sistema orokorreari dagokionez:

- Energia elektriko-sarearen hornidura: tentsio erdiko linea luzatu egingo da Intxaurreatik Ereñora, sarearen mailatzea osatzeko eta zerbitzuaren berme handiagoa erdiesteko.
- Oinezko bideak: oinezko edota bizikleta bide-sarea osatuko da Merikatik Lekerikarakoa, egungo galtzadaren eskuin ertzetik, paraleloan.
- Heliportua: Osakidetzako Larrialditako osasun-helikopteroak irisgarritasuna izan dadin plataforma baten kokapen egokia bilatuko da. Beharrezko baldintzak betearaziko beharko ditu kokapen honek, errepide bide baten ondoan eta 27 metrotako diametroko zabaleraduna, edonolako kableetatik, zuhaitz, farola edo bestelakotik libre eta azalera laua izan beharko da.

Araudi Sektorialaren ondorioz:

- Plan Orokorreko dokumentazioan Bilboko Aireportutik eratortzen den aeronautika zor-eremua jaso egingo da.